

## PALESTINA ETA ISRAEL

Azken bolada honetan, mundua polaritate ezberdin eta ugariren arteko konfliktu eta interesen ondorioz, gerra munduan murgiltzen hari da, eta konfrontazio eta desadostasunak handitzen hari dira; krisi ekonomiko, humanitario eta politikoen antzera. Palestinar eta judutarren herriaren arteko "gerra"-z, edota beste batzuek diotenez "Israelek sortutako genozidioaz" albiste eta informazio ugari ari gara jasotzen egunerokoan, ezker muturreko albisteak gainenduz. Baina, zer ari da gertatzen benetan? Komunikabideek kontatzen digutena soilik da, edo haratago doa? Zein interes daude gerra honen atzean?

1917.urtean, Erresuma Batuko Arthur Balfour ministroak, nahi bat zuen. Israeldarrei herrialde bat sortzea. Ondorioz, judutarren komunitate ingeleseko buruzagiari mezu bat idatzi zion nahiak adieraziz. Baina, hala ere, beste helburu bat zuen ministro honek; Arabiar penintsula kontrolatzen zuen Otomandar inperioaren infuentzia txikiagotzea. Halere, hau dena, ez zen hemen hasi; izan ere, K. a. I.mendean, judutarrak jada, Palestinan kokatuta zeuden, nahiz eta, Erromatar inperioak kudeatzen zieten. Baina, VII. mendean musulmanek Palestina konkistatu zuten.

Berriro ere, 1917. urtera itzulita, sionismo deituriko mugimendua garatzen hasi zen, hau da, judutarren inmigrazioa Palestinara herrialde justuago baten bila. 1917 eta 1948. urteen artean, Palestina kolonia Britaniar bat izan zen, ondorioz, lehen aipatu dugun gizonak bultzatuta, judutar asko Palestinara joan ziren. Honek, estremista musulmanen erreakzioa eragin zuen eta 11 pertsona eraman edo hil zituzten. Gainera, judutarren inmigrazioa geroz eta handiago zen; izan ere, NAZI-ek egiten ar ziren genozidioetatik ihes egiten saiatzen ari ziren. Gorakada honen ondorioz, "Arabiarren Matxinada Handia" izenez ezagutzen den mugimendua hasi zen, judutarrak eta britaniarrak Lurralde Santutik botatzeko helburuarekin. Gertakizun hauen ondorio, NBE-ak, hebrearrentzako lurralde bat ematea erabaki zuen. Horretarako, Palestina bi zatitan banatu zuen.

Bi herrialdeak batera jartzerakoan, bakeak ez zuen asko iraun. Ondorioz, Erresuma Batuk Palestinan zituen kolonietatik alde egin zuen azkar eta bi herrialdeen arteko gudua hasi zen. Orduan 1948an, Israelek independentzia deklaratu zuen eta Libanok, Egiptok, Siriak, Transjordaniak, Irak-ek, Arabia Sauditak eta Yemek azken herrialde honi gerra deklaratu zioten. Nahiz eta inork ez zuen espero, Israelek lehen gerra hau irabazi zuen eta irabazi zien herrialde batzuekin akordio batzutura iritsi ziren.

Gerra honetaz gain, bi herrialdeen historia gerra ugariz markatuta dator; esaterako, 1952ko gerra, Jon Kipur-eko gerra, Sei eguneko gerra, guztiek arabiarrekin eta judutarrekin zerikusi zuzena izan zuten, besteak-beste.

Halere, gerrez gain, Palestina deituriko lurrean egon diren ika-mikak, judutarren kontsolidazioa musulmanen lurretan, judutarrek historian zehar hainbat erlijioetatik jaso duten jazarpena, hauen estatu eta nazioaren gorakada, palestinarrekiko lortu duten kontrola, eta

tankerako gertaerak politiko, ekonomiko eta militarrek datoz, orain, 2023. urtean, palestinarren herriaren eta judutarren herriaren arteko konfliktu sozial eta militarren atzetik.

Historikoki gauzatu diren gertakizunak alde batera utzirik, beste hainbat interes, eta influentzia ere azpimarragarriak dira; egun hauetan israeldarren eta palestinarren arteko konfliktuaren kausa handi bat baitira. Esaterako, eta judutarrek munduan duten influentzia kontuan hartuz, Estatu Batuetan soilik, egungo Biden presidentea eta Kenedy presidente ohia izan dira katolikoak diren presidentek, eta, nahiz eta presidente kristauak (katolikoak ez direnak) ere egon diren, presidente ugari kristauak eta judutarrak izan dira. Beste adibide batzuk emateko, esaterako, AEB-ko 308 milioi biztanletik, bost milioi judutarrak dira, bertako politikan duten pisua %2,3koa da, biztanlerian duten ehunekoa handituz. Horren adibide da Henry Kissinger judutarra, politika internazionalan eta Gerra Hotzaren hasierako urteetan estatuko idazkaria izan zena, eta diplomazian eta beste nazioen arteko erlazioetan diplomatikoetan gehienbat, pisu handienetakoa eduki zuen politikari bat izan zena. Estatu Batuez gain, Frantzian, esate baterako, 400.000 judutar bizi dira...

Judutarrekin jarraituz, herrialdea sortu zenean, 1948. urtean hain justu, herrialdeko agintariak ezker muturrekoak ziren; eta horren ondorioz, Soviet Batasunarekin erlazio diplomatiko sendoak edukitzea ere heldu ziren. Halere, denbora pasa ahala, Israelen ideologia eskuin muturrera hurbiltzen joan da, eta 1977. urtean, 1996. urtean, 2009. urtean, eta momentu honetan, ultraeskuindar muturreko partiduek gobernatzen du herrialdea. Honen ondorioz, Ekialde Hurbilean duen kokapen estrategikoarengatik, eta zehazki Teheran-en aurkako leihagatik, AEB-n aliatu estrategiko bat da. Honengatik, aurrez aipatutako munduan duten influentziagatik, eta, batez ere duten modelo liberalagatik, Israelek munduko inteligentziarek hoberenetakoa du, eta dituen arma sofistikatuei dagokionean, zer esanik ez. Whashington-ek herrialde judutarrari dituen defentsa-sistema eta armarik berrienak eta modernoak ematen dizkio, eta horren adibide da Tel-Avivetik dituen F-35 ehiza-egazkinak. Honetaz gain, Israelek 90 bat buru nuklear dituela esaten da. Beraz, Israelen teknologia aurreratua, dituen laguntza internazionalak, munduan duten influentzia, eta duten ekonomia prosperoa eta, hortaz liberala kontuan izanik, esan dezakegu, Israelek Palestinarekiko duen abantaila teknologiko-militarra izugarria dela, eta hori Benjamin Netanhayuk, eta, Israelek orokorrean, aprobetxatu egin du.

Honen adibide argiena, Israelek Palestinaren lurretan azken urteotan ezarri dituen kontrolak, harresiak eta tankera kontrol-sistema teknologiko aurreratuak dira. Gehitzeko, Zisjordaniako lurraldea zati txiki handitan banatu duten azken hauek, eta guztiz kontrolpean dituzte palestinarren ia herrialde guztian zehar. Jarraitzeko, sarekadak, atxilotze ilegalak, giza eskubideen urraketak, eta tankerako sarraskiak ugariak dira lehenago esandako lurraldean. Azkenik, Gaza, planetatik biztanleria dentsitate handiena duen, eta 2 milioi pertsonaren bizilekua da, hainbat aldiz inbaditua izan dena eta hamaika aldiz bonbardeatua egon dena.

Jarraitzeko, Netanhayuri, momentu honetan, esan daiteke gerra hau jarraitzea interesatzen zaiola; izan ere, azken honen popularitatea asko jaitsi da azken boladan, eta gerra honetan musukuloa erakustea, edota Hamas, Hezbollah, edota, azken batean Iran beraren

aurrean sendotasuna erakusteak bozka gehiago eman diezakioke. Baina, bozkez gain, Iranek kontrolatzen dituen talde yihadistak eta terroristak usatzea interesatzen zaio.

Esan dezakegu, Lurralde Santua betidanik egon dela gerran, hain justu, gizakiaren antzera. Baina, gaur egungo gerran ez dute Israelek eta Palestinak solik parte hartzen. Atzean beste interes ekonomiko, militar eta sozialak ditugu, eta horren adibide dira Errusia, Estatu Batuak, Katar, Arabia Saudita, Iran eta Txina; nahiz eta azkeneko hau ez den asko ikusten, haren interesak defendatzen ditu. Kasu honetan haren interes ekonomikoak. Iran eta Arabia Sauditari dagokionean, bi potentzia erregionalak Ekialde Hurbilaren tableroa menderatu nahaian dabilta: Iranek Hamas, Hezbola, Huti-ak (Yemenen), Irakiar miliziak eta gehiago suministratu eta erabiltzen ditu haren interesak defendatzeko musulmanen jainkoak judutarrak botatzea eskatzen diela eta tankerako eskusekin. Aldiz, Arabia Sauditak Yemeneko Gerra zibilean harentzako interesak defendatzen dituzten miliziak suministratzen ditu eta Hamasek Israel inbaditu edota Israelen egindako inkursioa aurretik, Israelekin hitzarmen nahiko garrantzitsuak egingo zituen. Halere, hori guztia orain izoztuta dago (Gazako tragediaren ondorioz). Estatu Batuek soldadu ugari ditu Ekialde Hurbilean desplegatuta Estatu Islamiarraren berpiztea itzaltzeko eta Iranen influentzia kudeatzeko eta kontrastatzeko (halere helburu hau berria da). Errusiari, bestalde, gerra hau interesatzen zaio; izan ere, horrela, mendebaldearen arreta desbideratzen du, Estatu Batuekin desmarkatzen da eta Iran eta Ipar Korearekin hitzarmenak gauzatzen ditu Ukrainiako gerran armaz suministratzeko. Azkenik, azken faktoreari dagokionean, Katarrek botere handia du iritzi arabean eta ingelesean (Al Jazeera egunkariaren ondorioz) eta bi bandoetara jokatzeko du. Interesatzen zionean, mendebaldean ezkertiar ideologiarekin loturik dauden artikuluak publikatzen ditu, Gazako tragediaren harira. Aldiz, arabiarrei bertsio ezberdin bat ematen die, askoz ere totalitarioagoa eta Islamistagoa. Horrela, publiko handia edukitzea lortzen du eta haren irudia garbitzea lortzen du. Gainera, Estatu Batuek base militar inportante bat edukitzea lortu du haren lurretan, haren “dinastia” salbatzeko.

Tragedia humanitarioari begira, zer esanik ez. Ezin da deskribitu Gazako jendearen egoera inhumanoa eta erabat lekuz kanpoko eta sekuestratuen familiek jasan behar dituzten sentimentu latzak eta deskribaezinak. Horregatik, nahiz eta hainbat herrialdek bake-hitzarmen bat eskatu duten, badago jendea gerra hau interesatzen zaiona, eta, badaude herrialdeak, Estatu Batuen antzera, gertatzen ari denak su-eten bat behar duela baino, bitartean armak eta laguntza ekonomiko suministratzen ari direla Israeli. Hau guztiagatik, gehiago egin beharko luke pertsona bakoitzak eta, batez ere politikariek su-etena egia izan dedin eta garrantzizkoa da Netanyahu bezalako politikari ultraeskuindar eta arrazista bati kasurik ez egitea eta bi herrien arteko ekilibrioa eta elkarbizitza bermatzea.